

ISSN: 2530-6561
2021eko abendua
Bilbao

hegoak zabalduz

Hegoa, Nazioarteko
Lankidetzeta eta
Garapenari Buruzko
Ikasketa Institutua

Universidad del
País Vasco /
Euskal Herriko
Unibertsitatea
UPV/EHU

Sumak kawsay, buen vivir, bizitze ona: Garapenari alternatiben bila

Unai Villalba-Eguiluz

Sumak kawsay, buen vivir, bizitze ona: Garapenari alternatiben bila

Unai Villalba-Eguiluz

UPV/EHUko Ekonomia Aplikatua Saileko irakasle-ikertzailea

Aurkibidea

1. Laburrean hasteko: zer da bizitze ona?	5
2. Alternatiben testuingurua: postgarapena, dekolonialitatea, pluribertsoa, trantsizioak	6
3. Buen vivir edo sumak kawsay? Korrante desberdinak, itzulpenak eta kooptazioak	8
4. Edukiak eta helburuak: hiru harmonia, helburu globalak, eta beste	11
4.1. "Maldesarrollo"-aren erroak eta Bizitze Onaren helburu eta estrategiak	11
4.2. Bizitze Onaren Helburu Globalak	13
4.3. Bizitze Ona eta feminismoak	14
4.4. Bizitze Ona eta ekonomia-ereduak	15
5. Esperientziak errealitatean: konstituzioaren osteko mugak ekuadorren	17
5.1. Estraktibismotik ezin atera	17
5.2. Politika eraldatzaileak sustatzeko mugak: ekonomia popular eta solidarioaren kasua	19
6. Azken hitzak: erronkak eta elkar-bilaketak orain eta hemen	20
7. Bibliografia	21

Erredakzio kontseilua

Zuzendaritza: Xabier Gainza
Irati Labaien

Kideak: Eduardo Bidaurrezaga
Iker Etxano
Mertxe Larrañaga
Elena Martínez Tola
Mikel Zurbano

hegoak zabalduz euskarazko material bildumak ikuspegi zabal batetik garapenarekin lotutako askotariko gaiak jorratzea du helburu. Testuak didaktikoak eta dibulgazio mailakoak dira, eta gaien inguruko sarrera edo ikuspegi orokorra ematen dute.

Sumak kawsay, buen vivir, bizitze ona: Garapenari alternatiben bila.

Egilea: Unai Villalba-Eguiluz

hegoak zabalduz - 21. zk. 2021eko abendua

ISSN: 2530-6561



www.hegoa.ehu.eus

UPV/EHU. Zubiria Etxea
Lehendakari Agirre Etorbidea, 81
48015 Bilbao

Tel.: 94 601 70 91
Faxa: 94 601 70 40
hegoa@ehu.eus

UPV/EHU. Carlos Santamaría Zentroa
Elhuyar Plaza, 2
20018 Donostia-San Sebastián
Tel. 943 01 74 64
Faxa: 94 601 70 40
hegoa@ehu.eus

UPV/EHU. Arabako Campuseko Liburutegia
138. posta-kutxa
Nieves Cano, 33
01006 Vitoria-Gasteiz
Tel. / Faxa: 945 01 42 87
hegoa@ehu.eus

Diseinua eta Maketazioa: Marra, s.l.

hegoak zabalduz material bilduman argitaratzen diren testu guztiak,
Creative Commonsen lizentzia honekin argitaratzen dira:

Aitortu-EzKomertziala-LanEratoririkGabe 3.0 Espainia.

Lizentzia osoa:

<https://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/es/legalcode.eu>



Finantzatzailea:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentua
Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes

Laburpena: *Sumak Kawsay* (edo *Buen Vivir* edo Bizitze Ona) Mendebaldeko garapen ereduari (koloniala, kapitalista, patriarkala... den horri) alternatiba gisa Hego Amerikan sortu den paradigma bat da. Noski, ez da ezerezetik hasi, Andeetako eta Amazonaseko herri indigenen antzinako filosofia, bizimodu eta jakinduria tradizioetatik abiatuta osatzen joan da. Andeetako filosofia indigenen printzipioetan oinarrituta (erlazionalitatea, erreziprozitatea/ elkarrekikotasuna, osagarritasuna, korrespondentzia), honakoak dira Bizitze Onaren adierazpide nagusietako batzuk: naturarekin eta izaki guztiokin harmonian bizitzea; naturaren eskubideak errekonozitzea; plurinazionalitatea eta kulturartekotasuna; bizitza komunitatean ulertzea; elikadura burujabetza; ekonomia-eredu komunitario eta sozial eta solidarioak, eta abar eta abar. Adierazpide hauek antzekotasunak izan ditzakete munduan beste toki askotan eraikitzen diren eredu alternatiboekin, baina ontologia propio desberdin bat dago azpian sakonean. Izakiak eta bizimodua ulertzeko era propio hori gako da.

Bizitze Ona Ekuador eta Boliviako konstituzioetan agertzeraz ere ailegatu da, eta, beraz, politiketan isla bat izan beharko zukeen, baina gobernuen praktikak eta ekonomia-moldeak (adibidez estraktibismoa) ez dira askorik aldatu. Nola jarri martxan eredu alternatiboak egungo errealitateetatik abiatuta? Bai ala bai, kontraesanak sortuko dira bidean, baina ontologiaren oinarriak gogoratzea funtsezkoa da, kontraesan horietan iparra (edo hegoa) galdu nahi ez bada behintzat.

Hitz gakoak: *Sumak Kawsay*, *Buen Vivir*, Naturaren eskubideak, Garapenari alternatibak.

Abstract: *Sumak Kawsay* (or *Buen Vivir* or Good Living) is a paradigm that has recently spread in South America as an alternative to the Western development model (colonial, capitalist, patriarchal...). Of course, it did not come out of nowhere, it was formed from the ancient philosophy and the way of life and traditional wisdom of the indigenous peoples of the Andes and the Amazonas. Based on this Andean indigenous philosophy's principles (relationality, reciprocity, complementarity, correspondence), some of the main expressions of the *Buen Vivir* are: living in harmony with nature and all beings; recognizing nature's rights; plurinationality and interculturalism; understanding life within a community; food sovereignty; communitarian and social and solidarity economic models, etc. These expressions may have similarities with alternative models that are built in many other places in the world, but there is a different own ontology underneath. These characteristic way of understanding beings and life is key.

The *Buen Vivir* has gone so far as to appear in the constitutions of Ecuador and Bolivia, and so it should have a reflection into policies, but then government practices and economic models (e.g. extractivism) have not changed much. How to implement alternative models departing from current realities? Contradictions will arise either way, but the basics of the ontology are the clue in order not to lose the north (or south) in those contradictions.

Keywords: *Sumak Kawsay*, *Buen Vivir*, Rights of Nature, Alternatives to Development.

“Soy, soy lo que dejaron
Soy toda la sobra de lo que se robaron

...

Soy el desarrollo en carne viva
Un discurso político sin saliva”

Latinoamerica abestia, Calle 13 musika-taldea.

1. Laburrean hasteko: zer da bizitze ona?

Antza, Calle 13-ren abestiak dioen moduan, garapena munduko biztanleriaren parte batentzat behintzat mingarria da (“en carne viva”), eta, gainera, gaur egun sinesgaitza bilakatu, eta ez da erakargarria (“discurso político sin saliva”). Noski, hau ez da bat-batean ezerezetik gertatu; prozesu historiko luzeen testuinguruan kokatzen da, eta “mindutako” Latinoamerikako biztanleria horrentzat kolonialismoaren atzetik dator (“la sobra de lo que se robaron”). *Sumak Kawsay, Buen Vivir*, edo Bizitze Ona¹ garapenaren diskurtso horri alternatiba gisa agertu zen XXI. mendearen hasieran Latinoamerika andetarrean, herri indigenen ikuspegitik abiatuta, eta Ekuadorreko eta Boliviako konstituzioetan presentzia izatera ere ailegatu zen 2008 eta 2009an, hurrenez hurren.

Garapenaren diskurtsoa XX. mendearen erdialdetik aurrera mundu osoan joan zen gailentzen, eta jendarte eta ekonomia aurreratuen helburu desiragarritzat jotzen zen. Baina, 1970eko hamarkadatik aurrera, pixkanaka, garapenaren diskurtso eta praktika horiek sortzen zituzten kalte ugari agerian geratzen joan ziren, eta sektore politiko, sozial eta akademiko desberdinek kalte horiek seinatu, eta garapena kritikatu zuten. Ordutik, askorentzat konponbidea garapenaren diskurtsoa eta praktikak hobetzea izan da, fintzea, birmoldatzea, zabaltzea, eta horrela sortuz joan izan dira garapen jasangarria, garapen partehartzailea, ekogarapena, giza garapena, garapen lokala, garapen endogenoa, eta abar eta abar. Baina diskurtsoak eta ikuspegiak aldatuta ere, praktikan, garapenaren albo-kalteek bere horretan jarraitu izan dute. Albo-kalteak, munduko biztanleriaren parte batentzat behintzat, garapenaren praktikekin galtzaileak eta irabazleak egon ohi dira eta. Horregatik, postgarapenaren kritika sakonagoak egin izan dira, eta horien baitan koka dezakegu *Sumak Kawsay* edo *Buen Vivir*, beste alternatiba integral bat bezala.

Zer da, beraz, Bizitze Ona? Jendartean bizitza ulertu eta antolatzekeo paradigma bat. Zentzu horretan, garapenaren galderaren antzerakoari erantzuten dio (zeintzuk dira bizimodu eta helburu desiragarriak?); baina abiapuntu eta klabe desberdinetan bilatzen du erantzuna. *Sumak Kawsay* edo *Buen Vivir* paradigmaren barruan korrante desberdinak daude, eta bakoitzak erantzun desberdinak emango ditu, baina badaude garapenaren diskurtso nagusietatik bereizi ohi dituzten oinarri batzuk.

Garapenetik bereizten dituen oinarri horiek, modu desberdinetan sailkatu ohi diren arren, gutxi gorabehera honakoak dira (Villalba 2013): (i) ongizatearen eta bizitza-kalitatearen birkontzeptualizazio bat, non harmoniak eta ekitateak, modu komunitario edo kolektibo integral batean, garrantzia handia hartzen duten; (ii) gizakion eta naturaren arteko erlazioen birkontzeptualizazio bat, berriro ere harmonia printzipioa gidari, non jasangarritasun edo iraunkortasunaren ikuspegietatik haratago biozentrismoarantz gerturatu garen, naturaren eskubideak onartzeraino; (iii) historia eta garapena modu lineal, unibertsalista eta ekonomizista batean ulertzeari kritika; (iv) herri indigenen kultura eta jakinduriei berriro balioa eta errekonozimendua ematea, plurinazionalitatea eta interkulturalitatea aldarrikatuz. Esan ohi da Bizitze Ona hiru harmonia edo oreka lortzean datzala (Cubillo-Guevara et al. 2016): (i) pertsonala edo norberarena bere buruarekin (identitatea); (ii) sozial-komunitarioa (ekitatea); (iii) integrala, osotasunezkoa, edo naturarekikoa (biozentrismoa). Finean, modernitateari, kolonialitateari eta kapitalismoari egiten die kritika Bizitze Onak. Kritika horiek kokatuko ditugu jarraian.

1 Hirugarren kapituluan hitz egingo dugu “itzulpen” zehatzen garrantzia handiaz; oraingoz, ez dugu ñabardura handirik sartuko.

Nuestra convicción compartida... es que el concepto de «desarrollo como progreso» requiere ser deconstruido y reemplazado por alternativas que respeten y nutran la vida sobre la Tierra. El modelo desarrollista occidental predominante es un constructo homogeneizador que ha sido adoptado por gente de todo el mundo bajo condiciones de coerción material. El término posdesarrollo resume una miríada de críticas sistémicas y estilos de vida alternativos.

...propone poner a prueba todos nuestros actos según los parámetros de equidad social, sabiduría ecológica, diversidad cultural y democracia económica y política.

Pluriverso. Un diccionario del posdesarrollo.

Kothari A., Salleh A., Escobar A., Demaria F., Acosta A. (2019)

2. Alternatiben testuingurua: postgarapena, dekolonialitatea, pluribertsoa, trantsizioak

Garapenaren diskurtso, ideia eta praktikak ia mundu osoan zehar joan ziren gailentzen hamarkada luzez Bigarren Mundu Gerraz geroztik. Garapenkeria zabaltzearen ondorioen aurrean, 1990eko hamarkadaz geroztik garapenaren paradigma horri errotik kritika zorrotza egiten dion alternatiba gisa sortu zen postgarapena (Escobar 2010, Gudynas 2014).

Garapen terminoak esanahi bakarra ez duen arren (lehen, abizen ugari jarri dizkiogu: giza garapena, jasangarria, tokikoa...), historian zehar, aurrerabide materialaren eta modernizazioaren ideiekin lotu izan da normalean. Aldi berean, aurrerabide hori ekonomiaren hazkundearekin identifikatu/sinplifikatu izan da maiz, eskuragarri dauden ondasun eta zerbitzuen hazkunde horrek jendartearen ongizatea hobetuko zuelakoan modu batean edo bestean. Ostera, "abizendun garapen-teoriek", hazkunde materialaren zentralitate hori gainditu nahian, gizakion gaitasunen zabalkuntzan eta aukeratzeko ahalmenean jarri dute arreta, adibidez. Baina askorentzat, praktikan behintzat, ez dute lortu hazkunde ekonomikoaren diskurtsoaren nagusitasuna baztertea.

Bestalde, postgarapenaren aburuz, *garapen* terminoak (abizendunek ere bai) botere-harreman desparekoak izkutatatu izan ditu beti atzean. Besteak beste garapenak ez du nahikoa errekonozitzen historikoki izan diren menpekotasun-prozesuen papera: kolonialismoa eta kolonialitatea nagusiki. Hau da, postgarapenaren iritzi, europar jatorriko herrialdeen modernitatea, industrializazioa, aurrerapena eta, finean, garapena posible izan ziren, historian zehar beraien koloniak menperatu eta ustiatu zituztelako europar metropolien beharren arabera. Mende luzez kolonietatik bortxaz ateratako "baliabideek" (zilarra, esklabuak...) ahalbidetu zuten metropolien metaketa materiala eta industrializazioa.

Beste hitz batzuetan esanda, herrialde (edo jendarte-sektore) aberatsen garapena beste herrialde batzuen azpigarapenaren kontura gertatu izan da historikoki. Garapena eta azpigarapena, beraz, Mendebaldeko kapitalismoaren hedatzearen prozesu berberaren bi aldeak lirateke, non herrialde eta jendartearen sektore batzuek metaketa materiala eta onura sinboliko-kulturalak pilatzen dituzten, eta besteek kalteak pairatzen dituzten. Garapena ez zen, hortaz, norabide bakarreko lasterketa desiragarri bat, non herrialde batzuk aurreratuago dauden, hobeto egiteagatik edo lehenago hasteagatik, eta beste batzuek eurengandik ikasi, eta imitatzen saiatu behar diren. Lehia gordina zen, eta, beraz, herrialde guztiak ezin dira garapen ideal horretara ailegatu, sakonean menpekotasun- eta botere-harremanak daudelako, eta garapena "ondasun posizional" bat bilakatu delako.

Botere-harreman horietatik ihes egin nahian, postgarapenak aldarrikatzen du ez dagoela historiaren linealtasun bakar bat, guztiok helburu dugun helmuga bakar bat. Postgarapenaren arabera, ezin da garapena bezalako errezeta edo konponbide unibertsalik egon, munduko edozein txokotan baliagarria izango dena.

Aitzitik, tokian tokiko eta kultura bakoitzari egokitutako proposamen-mota askotarikoak defendatzen ditu postgarapenak. Horregatik, pluribertso kontzeptua ere zabaldu dute, proposamen alternatibo askoren aniztasuna plazaratzeko (Kothari et al. 2019). Proposamen horien artean dago² Bizitze Ona, baina baita beste lurralde batzuetan sortutako proposamenak ere, adibidez, desazkunde mugimenduen Europa. Orokorrean, trantsizio-diskurtso gisa ulertu daitezke postgarapenaren proposamenak: egungo sistematik ateratzeko bide ugarien esperimentazioa bilatzen dutenak (Escobar 2015).

Postgarapenaren oinarrian honako ideia hauek daude: (i) garapen-azpigarapen binomioaren aurka egitea; (ii) Mendebaldeko adituen jakintza arrazionalen metodoen aurrean, bestelako jakintza-ekologiak ere baliatzea; (iii) diskurtso bakarra eta historiaren linealtasuna kritikatzeko (pluribertsoaren alde); (vi) mugimendu sozial emantzipatzaileak sortzea.

Postgarapena ulertzeko, dekolonialitatea ere azaldu behar da. Lehen, kolonialismoa aipatu dugu, baina hori iraganeko prozesu historikoa da. Ordea, kolonialitateak jarraitu izan du boterearen, izatearen eta jakintzaren menpekotasun-forma gisa (Quijano 2011); non balio batzuk (Mendebalde modernoarenak) gailendu izan diren beste batzuen gainetik. Horregatik, *Sumak Kawsay* alternatiba paradigmatikoa da; ez da soilik bestelako proposamen bat, beste nonbaitetik sortua ere bada, bai ontologikoki, sozialki zein geografikoki, Amerikako baztertutako herrialde indigenen eskutik hain zuzen (Walsh 2010, Gudynas 2011).

Ondorengo taulak adierazten duenez, garapena "garapen txarra" bilakatu omen zenez, "bizitze txarrera" eramaten gintuen. Beraz "postgarapenaren bizitze ona" sortu behar zen horren aurrean, eta hainbat dimentsiotan alde nabarmenak sustatzen ditu.

1. taula. Garapenaren "malvivir" eta postgarapenaren "buen vivir"-aren arteko desberdintasunak		
Dimentsioak	"Mal Vivir" – "Maldesarrollo"	Postgarapenaren "Buen Vivir"
Natura	Kutsadura, isolamendua, suntsipena, gehiegizko ustiapena, hondamendiak, merkataritza-balioa	Harreman harmonikoa, naturaren parte izatea, naturarekiko komunioa eta batasuna, arreta handiz tratatzea, soilik behar adina hartzea, bizitzaren balioa
Gizakia	Indibiduala, banandua (burua, gorputza, espiritua, emozioak), alienatua, besterendua, estresatua, diruaren balioa (jabetzea)	Kontzientea (espiritua, burua, gorputza, emozioak), osasuntsua, ondo elikatua, komunitatean, erritmo naturalean eta etikoan biziz
Gizartea	Lehiakorra, segurtasunik gabea, inekitatiboa, desorekatua, kulturalki homogenea, axolagabea, kontsumista, baztertzalea, bidegabea	Komunitarioa, segurua, berdintasunezkoa, heterogeneoa, askotarikoa, kulturartekoa, plurala, solidarioa, lankidetzakoa, elkarrekikoa, barneratzailea, justizia soziala
Ekonomia	Kontzentratzailea, kapitalista, esplotatzailea, jabetza pribatua, produktibista, efizientzia, lan prekarioa	Solidarioa, birbanatzailea, komunitarioa, jabetza-mota ezberdinak (adibidez, kooperatiboa, mistoa), onura amankomuna, lanaren gozamina
Estatua	Nazionala, desarautua, ordezkartza bertikala, merkatuaren zerbitzura, kapitalaren boterea (dirua), justizia liberala (esku-bide indibidualak)	Plurinazionala, birbanatzailea, arautzailea, parte-hartze horizontala, publikoaren defentsa, burujabetza soziala, justizia plurala (naturako esku-bideak)

Iturria: Rodriguez-etik (2016) moldatua.

2 Hau "guk akademikook" egiten dugun klasifikazio bat da; ez du esan nahi herri indigenak euren proposamenarekin beraiek nahita eta kontzienteki postgarapenaren barruan kokatzen direnik. Beraz, berriro akademiaren jakinduriaren harrokeriaz besteen izenean hitz egitearen eta haiek tutelatzearren arriskua dago.

Atal hau bukatzeko, azken ohar bat. Postgarapenaren beste kezka bat jakintzaren sorkuntzaren legitimitatea da. Hau da, "Mendebaldeko akademikook" ez dezagun mundu osoaren unibertsaltasunaz gure zilborretik idatzi. Hori bera egitearen arriskuan nagoenez testu honekin, jarraitu baino lehen, aitor dezadan nondik edo nola hitz egiten dudan, nahita edo/eta nahi gabe, mundu honetan botere- eta pribilegio-posizio ugariaren jabe bainaiz: gizonezkoa (ustez), zuria, europarra, heterosexuala (oraingoz), akademikoa (lanbidez) eta abar. Bestetik, akaso nire alde, esan dezadan jatorri euskaldun eta ekuadortarra ditudala erdibana –familiaren erdia beti Ekuadorren–, eta hori ere esanguratsua izan daiteke esku artean dugun gai honetaz gertuagotik hitz egiteko.

"El Vivir Bien/[Buen Vivir] es la vida en plenitud. Saber vivir en armonía y equilibrio.
En armonía con los ciclos de la Madre Tierra, del cosmos, de la vida y de la historia, y en
equilibrio con toda forma de existencia en permanente respeto.
Al hablar de Vivir Bien/[Buen Vivir] se hace referencia a toda la comunidad.
No se trata del tradicional bien común reducido o limitado sólo a los humanos. Abarca todo
cuanto existe, preserva el equilibrio y la armonía entre todo lo que existe"
Huanacuni F., 2010

3. Buen vivir, sumak kawsay edo bizitze ona? Korronte desberdinak, itzulpenak eta kooptazioak

bizitze Onaren inguruan, korronte teoriko desberdinak daude, eta, aldi berean, haren sorreraren aitzindariak ere anitzak dira; ondorioz, Bizitze Onaren proposamen estrategiko-praktikoak eta eragile nagusiak ere orotarikoak dira. Horrela bada, Bizitze Ona singularrean baino, hainbatek Bizitze Onak aldarrikatzen dituzte, pluralean, aipatu berri dugun pluribertsoaren aniztasuna ere errekonozitu nahian. Bizitze Onaren baitan, hiru korronte nagusi identifikatu ohi dira, beheagoko taulan adierazten dugun moduan: bata indigenista, pachamamista, kulturalista edo partikularista izenez izendatu ohi da; beste bat, ekologista, postgarapeneko edo pluralista gisa; eta hirugarrena, berriz, sozialista, postmarxista, estatista edo unibertsalista gisa. Noski, horiek banaketa abstraktu idealak dira, errealtatean hiru korronteetako pentsamenduak eta eragileak nahastu baitaitezke: adibidez, indigenak sozialistak eta/edo ekologistak ere izan daitezke aldi berean. Baina korronte bakoitzaren ezaugarriak identifikatu baino lehen, ikus dezagun zer eztabaida dagoen kontzeptu edo termino bera izendatzeko moduari edo hizkuntzari buruz. Izan ere, gauzak nola izendatu erabakitzen dugunean, jada hautu garrantzitsu bat egiten ari gara, konnotazio ugari dituena.

Arestian Bizitze Onaren jatorria herri indigenetan dagoela esan badugu, noski, beraiek euren hizkuntza propioan egin ohi dute, adibidez Ekuadorreko kitxuan, eta beraiek *Sumak (Alli) Kawsay* terminoa erabili ohi dute. Termino hori *Buen Vivir* gisa ezagutarazi da gazteleraz, baina indigena eta ikerlari askok esaten dute *Sumak Kawsay* eta *Buen Vivir* terminoek ez dutela zehatz-mehatz esanahi berbera; adibidez, gaztelaniaz, *Buenos Convivires*, *Vivir en armonía* edo *Vida en Plenitud* ere hautatu zitezkeela. Baina atzean dagoen eztabaida ez da bakarrik itzulpen konkretu batena, baizik eta horren sakoneko esanahiarena eta diskurtsoa nork bereganatzen duen; izan ere, kasu honetan, hizkuntza bakoitzak ontologia konkretu bat baitu atzetik,

mundua ulertzeko modu bat, eta kitxuarena eta gaztelaniarena ez dira berdinak. Ingelesez akademikoki gai hauen gainean idazten dugunok ere, *good living* itzulpena erabili beharrean, *Sumak Kawsay* edo *Buen Vivir* terminoak erabiltzen ditugu, zer azpimarratu nahi dugun.

Eta beraz, euskaraz zer termino erabili beharko genuke? *Bizitze Ona*, *Ondo Bizitzea*, *Biziera Ona*, *Bizimodu Harmoniatsua*, ala gaztelaniako zein kitxuazko jatorrizko terminoak? Erantzun bakar errazik ez dago. Hemendik aurrera, testu honetan orokorrean, gaztelaniazko *Buen Vivir* terminoa erabiliko dut Ekuadorreko proposamen ofizialez edo korrante sozialista-estatistaz hitz egiteko. Aldiz, *Sumak Kawsay* terminoa erabiliko dut, kitxuaz, korrante indigenista eta antzinako filosofia andetarra azpimarratzeko. Eta *Bizitze Ona* terminoa, euskaraz, ez bata ez bestea nabarmentzeko, baizik eta proposamen askotarikoak barnean har ditzakeen termino zabal bezala.

Kontziente izan gaitezen terminologia eta itzulpenaren kontua ez dela kapritxo huts bat. Hainbat mugimendu indigenak esan dute Gobernua saiatu izan dela eurena propioa den ikusmolde bat kooptatzen. Hots, alternatibarako potentziala duen *Sumak Kawsay*-ren paradigma nolabait fagozitu, moldatu, eta sistemarekin funtzionalak izan daitezkeen lelo edo proposamen mugatu bihurtu.

Ikus dezagun, beraz, zeintzuk diren hiru korronteak; horrela, errazago ulertuko ditugu termino batzuk edo besteak erabiltzeak izan ditzakeen konnotazioak. Ondoko taulak erakusten duen moduan, korrante indigenista Andeetako mundu-ikuskeran oinarritzen da; bere lehentasunak komunitate indigenen autogobernu eta autoeraketa dira, eta eragile nagusiak herri eta nazionalitate indigenak berak dira. Posizionamendu horretatik, *Sumak Kawsay* sustatzeko estrategia zuzenena komunitateen (berr)eraikitzea da.

2. taula. Bizitze Onaren korrante desberdinak			
	Indigenista / Pachamamista/ Kulturalista/ Partikularista	Ekologista / Postgarapenekoak / Pluralista	Sozialista/ Postmarxista / Estatista / Unibertsalista
Epistemologia	Andeetako mundu-ikuskerak	(Post)modernoa	Modernoa
Terminologia	<i>Sumak Kawsay</i> Osotasunean bizitzea	<i>Buen Vivir</i>	<i>Buen Vivir</i> – Ongizatea Giza garapena
Lehentasunak	Komunitateen autogobernua / Autonomia	Naturaren babesa	Ekitatea, justizia soziala Estatua berreskuratu
Natura	Bizi-komunitate Zabaldua	Biozentrismoa Iraunkortasun sendoa	Iraunkortasun "pragmatikoa" (ahula)
Garapenaz	Garapenari alternatiba	Garapenari alternatiba	Neo-garapenkeria
Eragile nagusiak	Herriak eta nazionalitateak	Jendarteak	Estatua
Estrategiak	Komunitateen (berr)eraikitzea	Post-estraktibismoa Trantsizio kolektibo eta parte-hartzaileak	Hazkundera birbanaketarako Ekonomia- dibertsifikazioa Metatze endogenoa Kudeaketa publikoa

Iturria: Norberak egina, Villalba-Eguiluz eta Etxano-n (2017) oinarritua.

Korrante indigenista horrekin nahiko ondo bat egin dezake korrante ekologista postgarapenekoak. Ekologistek naturaren eskubideetan eta biozentrismoan jarri ohi dute azpimarra. Eta, horretarako, jendarte osoa eta mugimendu sozialak dira eragile garrantzitsuenak, zeintzuek trantsizio kolektibo eta parte-hartzaileak jarriko lituzketen martxan post-estraktibismoa sustatu ahal izateko.

Korrante estatista praktikan apur bat bereizten da aurreko bietatik. Ekuadorreko eta Boliviako "gobernu progresistetatik" gertuago koka daiteke korrante hau, eta bere lehentasuna ekitatea eta justizia soziala sustatzea da, Estatuaren egiturak eta sektore publikoaren norabidea horretarako berreskuratuz. Eragile nagusia, beraz, Estatu bera da, ez herri indigenak ezta mugimendu sozialak ere. Hala, estrategia ageriena birbanaketa sozialera bideratutako hazkunde ekonomikoa izan da, teoriarik, hazkunde hori lortuz ekonomiaren dibertsifikazioa bilatuz, metatze endogenoa sustatuz, eta enpresa publikoen eta Estatuaren paper sendotuago baten bidez.

Hiru korranteen arteko aldeak eta euren lehentasun eta eragileak ikusita, batzuek esaten dute *Sumak Kawsay* ez dela *Buen Vivir* delakoaren berdina, eta horregatik itzulpenen garrantzia. Eta euskaraz, *Bizitze Ona* termino bakarra erabiliko bagenu, zer galduko eta/edo irabaziko genuke terminoa euskaratzean?

Jatorrian filosofia indigena andetar-amazonikoa dagoenez, eta guretzat (euskaldun, moderno, europarrak) korrante hori bera arrotz izan daitekeelakoan, zentra gaitzen apur bat gehiago horren bereizgarri batzuk aztertzen³ (Choquehuanca 2010, Macas 2010):

- (I) *Ondo* bizitzea aldarrikatzen dute, ez geroz eta *hobeto* (*Vivir bien* vs. *Vivir mejor*). *Hobeto* terminoa hazkunderen eta lehiakortasunaren logikan erori daiteke. *Ondo* terminoak, ordea, nahikotasuna eta harmonia azpimarratzea du helburu. *Ondo* eta harmonian jada gorentasun maila bat da. Gainera, nahikotasuna garrantzitsua da egungo krisi ekologikoaren testuinguruan, ama lurraren mugak eta zikloak errespetatzeko gakoa delako. Egungo trantsizio ekologikoetan askotan hitz egiten da efizientziaz, baina garrantzitsua da halaber sufizientzia- edo nahikotasun-printzipioa. Hemen, akaso, desazkunderen lema ezagun batekin talka bat ikus daiteke, "gutxiagorekin *hobeto bizi*" dioenarekin, alegia, baina ez du zertan. Desazkunderen testuinguruan, *hobeto* horrek ez du hazkunde kuantitatiboa esan nahi, aldaera kualitatiboa baizik, ondasunen kontsumoa baloratzetik ongizate kolektiboko aldagaiak baloratzera pasatzerakoan.
- (II) Herri indigenen osagarritasun-printzipioa askatasunaren idealetik haratago doa. Mendebaldeko gure kulturaren, askatasun indibidualak balio goren gisa jartzen ditugu, bai legalki, baina baita psikologikoki eta kulturalki ere. Kultura indigena andetarrean, komunitatean ematen den osagarritasuna da garrantzitsuago, azpimarratzen delako gizabanakoa ezin dela existitu komunitatetik kanpo, osotasuna ulertu barik. Gizakia nekez izango da pertsona osoa bere komunitatean gertatzen diren osagarritasun eta elkarrekikotasunean oinarrituta ez bada.
- (III) Kantsentsu-mekanismoak aplikatzea erabakiak hartzeko prozesuetan, demokrazia liberalaren ordean. Aurrekoari jarraikiz, askatasun indibidualean oinarritzen bagara, kolektibo bat askatasun indibidualen batura soil bilakatzen da, eta mendebaldarron erabaki-modu demokratikoak gehiengo baturan oinarritzen dira. Komunitate andetarretan, ordea, kantsentsua da nagusi, testuingurua oso bestelakoa delako. Komunitatea entitate txiki, gertuko eta egonkorra izan ohi zen, beraz, sortzen diren erlazioak oso sendoak izan daitezke, eta erabaki bat denboran mantendu eta defendatu ahal izateko, "gehiengoa" batzuetan ez da nahikoa; kantsentsua behar da. Noski, kantsentsuak denbora ere eskatzen du; erabakiak ezin dira hartu guztion egoerak ulertu artean. Baina kontuz, kantsentsuak eta komunitateek ere botere harremanak izkutatatu ditzakete bere baitan, eta hori bereziki esanguratsua izan daiteke genero-kontuetan.
- (IV) Lana zoriontasuna da. Bai, lanaren kontzeptua bestelakoa delako. Lana ez da enplegu ordaindua. Lan nagusia komunitatearekin batera egiten diren biziraupen kolektiborako lanak dira, bai "produktiboak" zein "zaintza" lanak. Zentzu horretan, lana elkarrekin egoteko unea da, askotan *minga* kolektiboak egiten direlako; ikasketarako prozesua ere izan daiteke, eta, gainera, askotan ez da lan merkantilizatua. Umeen laguntza ere sar daiteke lanean, komunitatean txertatzeko ikasketa prozesu gisa uler baitaiteke.

3 Ez ditut komunitate indigenak idealizatu nahi: errealitate konplexuak eta aldakorrak dira. Baina gure kulturatik desberdinak diren esentzia bereizgarri batzuk idealki aztertzea da hemengo analisi-arietaren helburua.

Noski, ez dut hau guztia idealizatu nahi. Baina saia gaitzen ulertzen horrek sakoneko zer aldaketa dakartzan gure bizimoduan. Eta hori posible da, besteak beste, *Ayllu*-a edo "komunitatea" erdigunean dagoelako, *Ayni* eta *Pacha*-ren denbora-espazio unitate ez linealean. Bereizgarri horiek posible egiteko gako kontzeptual garrantzitsu batzuk daude: (i) bizitza erdigunean jartzea (ez soilik gizakiona); (ii) erlazio harmoniatsua naturarekin bilatzea; (iii) paradigma komunitarioa praktikan jartzea; (iv) lurraldetasun- eta plurinazionalitate-ereduak garatzea.

Jatorriaz eta filosofiaz aritu gara, hainbat gako identifikatuz: ona, ez hobea; osagarritasuna; kontsentsua; lana birpentsatzea. Zaila da, hala ere, hori guztia gure testuinguruan praktikan jartzen. Azter ditzagun hurrengo bi ataletan eduki zehatzagoak eta politika batzuen bilakaera.

El Buen Vivir, en esencia, es el proceso de vida que proviene de la matriz comunitaria de pueblos que viven en armonía con la naturaleza. El Buen Vivir constituye un paso cualitativo importante al superar el tradicional concepto de desarrollo y sus múltiples sinónimos, e introduce una visión diferente, mucho más rica en contenidos y, por cierto, más compleja.

Acosta, A., 2013.


4. Edukiak eta helburuak: Hiru harmoniak, helburu globalak, eta beste hainbat

Korrante teoriko eta esperientzia askotarikoak existitzen badira, ezin da egon Bizitze Onaren doktrina bakarra, helburuei, edukiei eta berau zabaltzeko estrategiei dagokienez. Izan ere, Bizitze Ona eraikitze prozesuan dagoen ikuspegi plurala da. Noski, are zailago suertatzen da neurri eta adierazle operatiboak topatzea. Hala ere, gabeziak gabezia, helburuak eta edukiak definitzeko ariketak interesgarriak dira. Jarraian, horietako batzuei jarriko diegu arreta.

4.1. Maldesarrollo-aren erroak eta Bizitze Onaren helburu eta estrategiak

Lehenik, beheko irudian sintetizatzen den Cubillo-Guevara-k et al. (2016) egindako proposamenari erreparatuko diogu. Hasteko, beraiek garapena *maldesarrollo* gisa ulertzen dute, Tortosari (2011) jarraikiz, eta horren arazoak eta jatorrizko zergatiak identifikatzen dituzte: kolonizazioak alienazioa sortu du; kapitalismoak, inekitatea, eta antropozentrismoak, hondamendi ekologikoa.

1. irudia. Malesarrollo-aren arazoak eta Buen Vivir-aren helburu eta estrategiak



Iturria: Cubillo-Guevara et al. (2016).

Beraz, horren aurrean Bizitze Ona garapenari paradigma alternatibo gisa ulertzen bada, helburu eta estrategia alternatiboak proposatzen dituzte. Alienazioaren arazoaren aurrean, helburua identitate askotarikoak berreskuratzea litzateke, eta horretarako estrategia, plurinazionalitatea sustatzea. Plurinazionalitateak, aldi berean, (i) dekolonialitate-, (ii) autodeterminazio- eta (iii) interkulturalitate-politikak beharko litzuzke; eta politika horiek garatzeko neurri batzuk kuoten sistemak, erreparazio sinbolikoa, tratu preferentziala eta abar lirateke (Cubillo-Guevara et al. 2016).


Bigarrenik, inekitatearen arazoaren aurrean, ekitatea jartzen dute helburu, postkapitalismoa eraikitzearen strategiaren bidez. Bide horretan, politika posible batzuk hauek lirateke: (i) merkatuen erregulazioa, (ii) birbanaketa-sistemak, Estatuaren zerga-sistema eta zerbitzu publikoen bidez, (iii) ekonomia-jardueraren eskalaren birdimentsionatze eta deszentralizazioa, eta (iv) orokorrean, jarduera ekonomiko askoren desmerkantilizazioa. Politika horiek garatzeko, neurri askotarikoak hartu beharko lirateke lanaren arloan, arlo finantzarioan, produktiboan, merkataritzan, eta kontsumoaren ereduetan (idem).

Hirugarrenik, jasangarritasuna edo iraunkortasuna helburu badira, horretarako estrategia antropozentristotik biozentrismoa pasatzea litzateke. Horretarako politika posible batzuk dira honakoak: (i) naturaren truke-balioen aldaketa, (ii) naturaren erabilera-balio guztien errekonozimendua, eta (iii) bereziki naturaren berezko balio intrintsekoak errekonozitzea. Honetarako neurri posible orokor batzuk hauek lirateke: ekoizpen eta kontsumoaren kanpo-eraginak kontuan hartzea, natura desmerkantilizatu eta birkontzeptualizatzea, eta, berritasun nagusi moduan, naturaren eskubideak aitortzea.

Laburtzeko, ikuspegi honetatik, Bizitze Onaren gakoa hiru harmoniak dira, eta horiek lantzeko, plurinazionalitatea, postkapitalismoa, eta biozentrismoa landu beharko lirateke.

4.2. Bizitze Onaren Helburu Globalak

Autore berberak, baina geroago Hidalgo-Capitán-ek gidatuta (2019), Bizitze Onaren Helburu Globalak aurkeztu zituzten. Nazioartean eta tokian toki, leku guztietan ageri diren Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako 17 Helburuen alternatiba gisa sortu nahi izan dituzte. Beheko irudian ikusten denez, arestian aipatutako hiru harmonia-mailetan (norberarekin, komunitate zabalduarekin, naturarekin) oinarritutako hiru helburu orokor definitu zituzten, eta, horietako bakoitzean, 7 azpi-helburu espezifiko identifikatu zituzten.



Iturria: Hidalgo-Capitán et al. (2019).

Helburu orokorrak horrela definitu zituzten:

1. **helburua:** "iraunkortasun biozentrikoa". Naturako izaki guztiekiko harmoniaren helburu orokorra: ekosistemen biodibertsitatearen, espezieen bioaniztasunaren eta biodibertsitate genetikoaren galera geldiaraztea, eta, aldi berean, gizakion aztarna ekologikoa planetaren bioahalmenera egokitzea.
2. **helburua:** "ekitate soziala". Gizaki guztiekiko harmoniaren helburu orokorra: munduko biztanleen gaitasun- eta aukera-desparekotasuneko mailak murriztea, herrialdeen, eskualdeen, landa- eta hiri-

barrutien, etnien, erlijioen, klase sozialen, generoen, sexu-identitateen eta pertsonen artean, bai eta lortutako gizarte-ongizatearen desparekotasun mailak ere.

- 3. helburua:** "gogobetetze pertsonala". Norberarekiko harmoniaren helburu orokorra: pertsonak beren bizitzarekiko duten asebetetze-maila handitzea, lurralde-testuinguru desberdinetan, eta, aldi berean, asebetetze-maila altuena eta baxuena duten pertsonen arteko aldea murriztea.

21 helburu espezifikoak ere definitzen dituzte laburki (ikus irudian), baina gero ez dute ezaugarri edo adierazle konkretuagorik sakontasunez jartzen. Puntu honetara ailegatuta, ohar bat. Helburu orokorren definizioa eta helburu zehatzen tituluak ikusita, zein lengoaia-mota eta jakintza-iturri erabiltzen dituztela somatzen du irakurleak? Ene uste apalean, paradigma moderno eta jakintza zientifikoarenak nagusiki; horregatik, *Buen Vivir Global*-az ari dira, eta ez *Sumak Kawsay*-az. Bestetik, postgarapenak tokian tokiko irtenbideak bilatzen zituen, ez homogeenak eta unibertsalak izango direnak; beraz, posible al da Bizitze Onaren helburu globalak definitzea? Batzuk ez daude ados bi arrisku horiek onartzearekin, baina ariketa interesgarria eta beharrezkoa da, duda barik, helburu globalak imajinatu ahal izatea.

4.3. Bizitze Ona eta feminismoak

Egin dezagun aurrera beste oinarrizko ikuspegi batekin: zer dio Bizitze Onak generoaz? Eta nola kokatzen da feminismoekiko? Ez dago erantzun errazik. Lehendabizi, aitortu behar da Bizitze Onaren proposatzaile nagusiek, zoritxarrez, ez diotela arreta berezirik eskaini gai horri; gainera, kontuan hartu behar da horietako asko gizonezkoak direla⁴. Jarraian, adieraz ditzagun eztabaidarako interesgarriak izan daitezkeen puntu batzuk laburki.

Lehenik, Bizitze Onaren eta feminismoen arteko puntu amankomun bat bizitza erdigunean jartzea izan daiteke, bizitzaren birsortze zabaldua gai funtsezko moduan kokatzea (Pérez eta Domínguez-Serrano 2015). Horrek, aldi berean, ekodependentziak eta interdependentziak azaleratzea ahalbidetzen du, eta zaintzaren eta lan erreproduktiboan erabateko garrantzia ikusarazten du. Ekofeministek diotenez, interdependentek gara, gizaki guztiok beste batzuen zaintza behar izaten dugulako gure bizitzako hainbat unetan; eta, aldi berean, ekodependenteak gara, naturaren elementu ugari behar ditugulako bizirauteko. Zentzu horretan, bi korrontek kapitala edo bizitza gatazka zentrala identifikatzen dute. Baina, ordea, zaintzen garrantzia identifikatuta ere, Bizitze Onak ez du zaintza horiek zeintzuek eta nola egiten dituzten (emakumeak, doan, esplotazioan...) esplizituki kritikatzeko, eta hor feminismoetatik gehiago ikastea tokatuko litzaioke Bizitze Onari.

Bigarrenik, Bizitze Onak, genero-kategoria erabili baino, osagarritasun-printzipioari erreparatzen dio, sistema bikoitza azpimarratuz, "*chacha-warmi*", non edozertarako eta uneoro joera femenino eta maskulino askotarikoek elkar osatzen duten, oreka batean. Izan ere, batzuek seinalatzen dute genero-ikuspegia modernoa, inposatua eta murriztailea dela. Osagarritasun-sistema hau, teoriarik, femenino/maskulino berdintasun-maila batean eta ekitatean planteatzen da, baina praktikan, rolen garrantzia eta lanaren banaketa sexuala ez dira esplizituki zalantzan jartzen, eta, beraz, zailtasunak ager daitezke feminismoen aldarriak aurrera eramateko.

Hirugarrenik, Bizitze Onak, naturarekin harmonia izateari ematen dion garrantzi handiari jarraikiz eta horretan askotariko kulturek duten zeregina errekonozituta, asko baloratzen ditu normalean emakumeek gordetzen dituzten antzinako jakintzak (haziei, belarrei, naturaren zikloei eta abarri buruzkoak). Horrek berriro ekodependentzia azpimarratzen du, eta, beraz, ekofeminismoarekin bat egitea erraza litzateke. Arrisku potentzial bat identifikatzearen, gerta liteke emakumeekiko esentzialismo biologiko batean erortzea.

4 Nik neuk nire muga nabariak aitortu nahiko nituzke hemen: nire argitalpenetan Bizitze Onaz aritzean, arreta gehiago jarri diot alde ekologiko-biozentrikoari, estraktibismoari eta arlo ekonomiko alternatiboari (ekonomia solidarioa); eta feminismoetan ez naiz aditua, ez nahi/behar beste aritua.

Laugarrenik, Bolivian nagusiki, despatriarkalizazioa eta deskolonizazioa aldi berean jorratu behar direla azpimarratu dute (Vega 2014). Bi zapalkuntza horien loturak identifikatzean, interseksionalitateak lantzeko esparru interesgarria irekitzen da. Hau da, interseksionalitateak onartzen du izakiok posizio, jatorri eta identitate askotarikoak izan ditzakegula aldi berean, eta, horien ondorioz, botere/menpekotasun harreman desberdinak sor daitezkeela. Hala, demagun emakume indigena nekazari txiro batek lau zapalkuntza-mota arrunt jasan ditzakeela aldi berean: gizonezkoena emakumeekiko, txuri-mestizoena indigenekiko, hiritarrona nekazarietarako, kapital-metaketa txiroekiko. Baina interseksionalitateak, aldi berean, askapen-prozesuen sinergiak eta potentzialitateak azpimarratzen ditu, eta Bizitze On feministak horretarako potentzialitate handia dauka.

Bosgarrenik, justu aurreko puntuarekin kontraesanean akaso, Bolivia eta Ekuadorreko esperientzietan, gobernuak nola erabili izan dute boterea instituzioetatik? Bizitze On estatista edo sozialistaren izenean ere konfigurazio- eta funtzionamendu-eredu autoritario eta patriarkalak aplikatu dituzte hainbatetan (Vega 2014).

Seigarrenik, atal labur hau amaitzeko, Bizitze Onak afektibotasun eta subjektibotasunari ateak irekitzen dizkion heinean, aukerak ireki daitezke halaber genero-erlazioak eta menpekotasun-harremanak, subordinazio- eta botere-dinamikak edo/eta biolentzia-erlazioak beste ikuspegi batetik aztertzeko. Baina berriro ere, arlo horretako lana egiteko dago oraindik, komunitate indigena askotan emakumeekiko biolentzia-maila desberdinak daudelako.

Oro har, esan dezakegu Bizitze Onaren eta feminismoen arteko lotura teoriko potentzial asko daudela, bai bata zein bestea aberastu eta aztergaiak sakondu eta fintzeko. Bizitze Onaren proposatzaileek, Hegoaldetik, herri indigenetatik, euren bide propioa egin behar dute euren feminismo ereduak topatzen (komunitarioak, dekolonialak, antirrazistak...), baina bide luzea dago oraindik aurrean.

4.4. Bizitze Ona eta ekonomia-ereduak

Bizitze Ona eraikitzea posible al da ekonomia-sistema kapitalista baten barruan? Eta eredu estraktibista baten barruan? Bi galderari, erantzun sinplista bat: ez, Bizitze Ona ez da bateragarria ez kapitalismoarekin ezta estraktibismoarekin ere, sistema horien metaketa-, ustiaketa- eta hazkunde-moduek ez dutelako uzten bizi den guztiarekin oreka eta harmonia mantentzen. Baina noski, gaur egun, bi sistema horien uztarketa dugu errealitatean, eta nola sortu zeozer desberdina, existitzen den horretatik abiatuz? Zein beste eredu ekonomiko behar dira? Galdera horiei nekez erantzun ahalko geniezaieke modu sinplista batean. Ez dago Bizitze Onaren doktrina konkretu bat sistema ekonomikoetara buruz, eta, beraz, paradigma ekonomiko heterodoxo askotarikoetatik elementuak har ditzake. Adibidez: ekonomia komunitariotik, ekonomia ekologikotik, ekonomia feministatik edo ekonomia sozial solidariotik. Noski, horien artean ere aldeak daude, baina baita elkar topaketarako puntu garrantzitsu amankomunak ere.

Hasteko, ekonomia komunitarioaz hitz egin dezakegu; izan ere, jatorrizko Bizitze Onaren korrante indigenistarekin agian gertutasun gehien duen paradigma ekonomikoa da. Ekonomia komunitarioak nabarmen kritikatu ditu kapitalismoa eta merkaturak gailentzearen printzipioa, eta bestelako harreman ekonomikoak proposatu ditu elkarrekikotasun-, osagarritasun- eta erlazonalitate-printzipioetan oinarrituta. Ikuspuntu horretatik, ekonomia-analisiaren kategoria asko birdefinitu behar dira: zer den lana, normalean ez-merkantilizatua eta kolektiboki eginga; zer diren ondasunak, eta nolakoa izan behar duen euren jabetzak, eta abar.

Baina ekonomia komunitario horrek normalean tokian tokiko komunitate txikietarako balio du; izan ere, bere ezaugarri hauek azpimarratu ohi dira: (i) lurralde definitu eta konkretu batean gertatu behar da, non materialtasunaren eta espiritualtasunaren alorren arteko harreman esanguratsuak sortu eta izan daitezkeen; (ii) komunitateen autosufizientzia bilatzea, non *ayllu*-ak zeregin garrantzitsuak duen, elkartasun- eta askotariko erreziprozitate-formak bideratu ditzakeelako; (iii) ingurunearen maneiu jasangarria; (iv) lan-indarra eta lan-harremanak ez dira modu merkantilizatuan ikusten. Ezaugarri horiek oso espezifikokoak eta zorrotzak dira, eta toki askotan ezin dira bete. Geroz eta zailagoa da komunitate indigenetan betetzea ere; beraz, hirigune handi batean, are zailago. Bizitze Ona, edo zehatzago, *Sumak Kawsay* ezin al da ekonomia komunitario

horretatik kanpo gertatu? Ez dakigu horri erantzuten, baina bestelako ekonomia-iturri alternatiboetatik edaten saia gaitzke behintzat.

Ekonomia Ekologikoa ere iturri baliagarria da. Ekonomia-eredu horrek errazago egiten du bat Bizitze Onaren korrante ekologista-postgarapeneko-pluralistarekin. Horrek ere merkatuaren gailentzea eta kapitalismoa kritikatzeko ditu, eta, bide horretan, ideia hauetan jartzen dute azpimarra, besteak beste: (i) ekosistemen funtzionamendu orekatuan; (ii) materialen eta energiaren erabileran mugak ezartzean eta zirkularitatea sustatzean; (iii) balioak neurtzeko ezintasunean, eta balorazio monetarioen askotariko mugak aitortzean; (iv) tokiko eskalak lehenestean; eta (v) agroekologia eta elikadura burujabetzan.

Idea horiek ondo bat egiten dute Bizitze Onarekin, baita desazkundearen proposamenekin ere; horra hor bien arteko lotura indartsu bat, iraunkortasun-trantsizio sakonak martxan jartzeko. Baina Bizitze Ona pauso bat harago doa espiritualitateari, biozentrismoari eta izaki bizidun guztien errespetuari dagokienez, eta hori, esaterako, naturaren eskubideak errekonozitzean ikusi daiteke.

Ekonomia Feminista da beste ezinbesteko iturri bat, horrek ere kapitalismoa eta merkatuen nagusitasuna kritikatzeko ditu. Baina feminismoaz hitz egitean aipatu dugun moduan, Bizitze Onetik beharbada ez da nahikoa sakondu oraindik adar honetan. Bat egiteko esparru nagusia bizitza eta zaintzak ekonomiaren erdigunean jartzea da, duda barik (ekodependentzia eta interdependentzia). Eta bi ideia horiek kategoria ekonomiko asko birdefinitzera ere eramaten gaituzte, halaber: nagusiki lana(k) ulertu eta antolatzeak erak, baina baita kontsumoa, ondasun publiko-kolektiboak eta abar. Bizitze Onari falta zaiona da emakumeek egungo ekonomian dituzten sarbide-desparekotasunak aztertzea; nola integratzen diren sistema ekonomikoetan, edo nola jasotzen duten diskriminazioa eta menpekotasuna, adibidez.

Azkeneko iturria Ekonomia Sozial Solidarioa da; eredu hori, gainera, Ekuadorreko Konstituzioan ere aitortzen da (ekonomia komunitarioa ere bai), eta politika espezifikokoak garatu izan dira finean ekonomia popular eta solidarioa izendatu izan duten alorrean. Ekonomia Sozial Solidarioa praktika askotarikoen amalgama bat da (Ekonomia Sozialaren tradizio zaharretik eta Ekonomia Solidarioaren praktika berrietatik eratorria da), eta orientazio normatibo garbi bat dauka, hau da, balore eta printzipio batzuk izendatzen ditu, eta bere praktikan horiek betetzen eta neurtzen saiatzen da.

Printzipio horien artean, ekitatea, lana, ingurumen-jasangarritasuna, lankidetzak, irabazi-asmorik eza, eta inguruarekiko konpromisoa topatu ditzakegu REAS-Euskadi⁵ sarearen arabera, baina, beste toki batzuetan, antzeko ideiei bestelako izendapenak ere jarri izan zaizkie. Hemen interesgarria da printzipio horiek praktikan ondo egin dezaketela bat aipatutako erregulazio-, birbanaketa-, birdimentsionamendu- eta dezentralizazio-, eta desmerkantilizazio-prozesuekin, eta horregatik ere baliagarriak dira Bizitze Onerako (Villalba-Eguiluz eta Pérez de Mendiguren 2019). Baita ekonomiaren demokratizazioa bilatzen dutelako ere.

Finean, esan dezakegu Bizitze Onak ez duela eredu ekonomiko bakar bat, baizik eta teoria ekonomiko heterodoxo anitzetatik elementuak hartzen joan beharko duela. Ekonomia komunitarioa *Sumak Kawsay* korrontetik gertuago egon daiteke; ekonomia ekologikoa, korrante postgarapen ekologistatik; eta ekonomia sozial solidarioak, agian, aurreko bi korranteetarako balio du, baina baita korrante sozialista-estatistarako ere. Hori bai, guztiek ekonomia feministaren ikuspegiaren beharra dute oraindik.

5 <https://reaseuskadi.eus/>

Reconociendo nuestras raíces milenarias, forjadas por mujeres y hombres de distintos pueblos,
Celebrando a la naturaleza, Pacha Mama, de la que somos parte...,
Como herederos de las luchas sociales de liberación frente a todas las formas de dominación
y colonialismo, Decidimos construir
Una nueva forma de convivencia ciudadana, en diversidad y armonía con la naturaleza,
para alcanzar el buen vivir, el sumak kawsay.
Constitución del Ecuador, 2008.

5. Esperientziak errealitatean: Konstituzioaren eta estraktibismoaren mugak

Gaur egun oraindik indarrean dauden Ekuadorreko (2008) eta Boliviako (2009) konstituzioetan, *Buen Vivir* eta *Vivir Bien* terminoak errekonozitu ziren hurrenez hurren, eta horrek aurrerapauso itzela ekarri zuen paradigma horren zabalkunderako. Edozein konstituzio, ordea, plan, estrategia eta politiketan garatu behar da, eta horiek ondo inplementatu, baliabide, neurri eta adierazle konkretu nahikoarekin; bestela, ezerezean gera daitezke.

Ekuadorreko Konstituzioan *Buen Vivir*-a atal askotan agertzen da. Adibidez II. Tituluan, non *Buen Vivir*-aren eskubideak definitzen diren; edo VI. eta VII. Tituluetan, non Garapen Erregimena eta *Buen Vivir*-aren Erregimena definitzen diren, hurrenez hurren. Konstituzioan, naturaren eskubideak ere aitortzen dira, eta ekonomia-sistema osoak soziala eta solidarioa izan behar duela esaten da.

Ekuadorren, Konstituzioaren ondotik, 2009-2013 epealdirako aldaketarako politikak sustatzeko lehendabiziko Plan Nazionala publikatu zen (*Plan Nacional de Desarrollo. Plan Nacional para el Buen Vivir. Construyendo un Estado Plurinacional e Intercultural*), eta, jarraian, 2013-2017 epealdirako bigarren Plana (*Plan Nacional de Desarrollo. Plan Nacional para el Buen Vivir. Todo el mundo mejor*); Estatuaren politika guztietarako gidatzat planteatu zituzten bi planok. Izenburuak berak *Buen Vivir* helburu dela aipatzen du, politika guztien gidari, eta 12 helburu nagusi zerrendatzen dituzte, zein bere neurri eta helmugekin.

Nola, zein adiera- edo ulermen-eredurekin agertu da Bizitze Ona testu ofizial hauetan? Nola joan da (des)itxuratzen paradigma teoriko-idealetik konstituziora pasatzean? Eta plan konkretuetan idazterakoan? Eta, finean, politiketara eta hartutako neurrietara ailegatzean? Mugak eta kontraesanak askotarikoak izan dira (ezinbestean, horrelako iraultza kontzeptual bat abiatuko bada), adibidez plurinazionalitatearen garapenean; jendartearen eta herrien parte-hartze prozesuetan; ekonomia sozial solidarioaren garapenean; elikadura burujabetzaren sustapenean; edo eredu estraktibista eraldatzeko nahian. Hemen ez dugu tokirik guztiarentzat, eta oso laburki, adibide gisa, ekonomia sozial solidarioaren sustapenean eta estraktibismoaren Ekuadorreko bilakaerak aipatuko ditugu.

5.1. Estraktibismotik ezin atera

Lehenik, estraktibismoari dagokionez, esan dezagun sinpleki estraktibismoa garapen ekonomikoa antolatzeke modu bat dela (horrek jendartearen edo naturan dituen eragin guztiak barne), non baliabide naturalak eskala handian eta oso modu intentsiboan erabiltzen diren, baliabide natural horiek prozesamendu industrial gutxi jasotzen duten, eta nagusiki esportazioetara dedikatuta dauden. Ekuador, Hego Amerikako

herrialde guztiak bezala, historikoki estraktibista izan da kolonia-garaietatik, eta gaur egun ere hala da oraindik. Ekuadorrek nagusiki petrolio, bananak, otarrainxkak, kakao eta txokolateak, arraina, kafea eta loreak esportatzen ditu. Baliabide naturalen (berriztagarri zein ez-berriztagarriak) kategoria gutxi horien esportazioek herrialdeko esportazio guztien % 70 baino gehiago esan nahi dute, eta nagusiena, alde handiarekin, petrolio da (Villalba-Eguiluz eta Etxano 2017).

Estraktibismoak arazo ugari eragiten ditu jendartean, naturan eta ekosistemen degradazioan, eta gatazka sozio-ekologiko askoren iturri da (Latorre et al. 2015); sakonean, truke ekologiko desorekatua eta baliabideen ustiaketa azkarra dira bi iturburu nagusiak. Truke ekologiko desorekatuak honakoa dakar Ekuadorreko kasuan: urtero, bere balantza komertzial fisiko eta monetarioak desorekatuta daudela. Hau da, inportatzen duena baino tona material gehiago esportatzen du, baina, ordea, dolarretan neurtuta, defizita du balantza komertzialean, ondasun gehiago inportatzen dituelako esportatzen dituenak baino. Finean, munduko gainerako herrialdeak (herrialde aberastuak esan beharko genuke) haien baliabide naturalez baliatzen gara. Ikusi ondorengo taulan nola gertatzen den hori *Buen Vivir*-aren bigarren plana hasita ere.

3. taula. Ekuadorreko esportazio eta inportazioen bolumenak eta merkatu-balioa						
	2013	2013	2014	2014	2015	2015
	Bolumena (tonak)	Balioa (milioi \$)	Bolumena (tonak)	Balioa (milioi \$)	Bolumena (tonak)	Balioa (milioi \$)
Esportazioak guztira	29.253.060	24.750	31.407.301	25.724	31.679.303	18.330
Inportazioak guztira	15.616.378	25.535	17.213.147	26.223	15.538.709	20.324
Saldoa	13.636.681	-784	14.194.154	-499	16.140.594	-1.993

Iturria: Villalba-Eguiluz eta Etxano-tik egokitua (2017).

Estraktibismoa zentzu horretan ez da desiragarria, baina hori gainditzea eta beste eredu batera abiatzea zaila da, inertzia historiko asko daudelako atzetik eta fenomeno konplexua delako: politika ekonomiko globalaren eta haren metabolismoaren menpe dago; oreka makroekonomikoen eta atzerriko dibisen neurrien menpe (Ekuadorreko ekonomia dolarizatua dago); gobernantza-eragile eta instituzioen botere-borroken eta tirabiren menpe; eta baita jendarte heterogeneo baten sektore desberdinen interesen menpe ere (adibidez, klase ertainen kontsumoa igo nahian, eta sektore publikoa finantzatu nahian justifikatu izan da estraktibismoa Ekuadorren). Gainera, epe motzeko eta epe luzeko helburu kontrajarriak agerian utz ditzake: epe motzean, natura ustiatzea ekonomikoki errentagarria suertatu zitekeen batzuentzat, baina, epe luzera, errentagarritasun horren iturria desagerrarazten du.

Horrenbestez, Bizitze Onak estraktibismoa gainditu eta eraldatu nahi du, baina, "gobernu aurrerakoen" garaian, Bizitze Ona konstituzioan eta Plan guztietan sartu zenean, aurreratu al zen norabide horretan? Zoritxarrez, ez. Datuak begiratu kontrakoa ere esan daiteke, hau da, estraktibismoa indartu egin zela. Ekuadorren, baliabide naturalen aurreko esportazio-mailak igo ez ezik, sektore berriak ere sustatu ziren, meatzaritza, adibidez. Oro har, Naturaren Eskubideen deklarazioak ez ziren bermatu; ingurumen gaietan parte hartzea galarazi zen; eta ekoizpen-matrizearen dibertsifikazioan eta eraldatzean ez zen aurrera egin (Villalba-Eguiluz eta Etxano 2017).

Atal honetan, oso esanguratsua izan zen Yasuní Parke Nasionaleko petrolio ez ustiatzeko proposamen berritzailea finean ez zela aurrera atera. Ekuadorreko oihan amazonikoan biodibertsitate oso handiko tokia da Yasuní, non, gainera, herrialde indigena ez-kontaktatuak borondatezko isolamenduan bizi diren. Ekuadorreko Amazoniako lurrazpi horretan ere petrolio dago. Bada, proposamena izan zen petrolio hori ustiatu barik uztea neurri ekologiko eta sozial moduan, CO2 isuriak ez handitzeko, eta trukean nazioarteko

fondo bat sortu zen, diru-iturriak konpentsatzeko nolabait. Martxan jarri zen, baina gero ondo atera ez. Halere, Ekuadorreko jendeak sinadura-bilketa eta erreferenduma egin zituen Yasunín petroliorik ez ustiatzeko, eta, azkenean, Gobernuak ez zuen kasurik egin.

5.2. Politika eraldatzaileak sustatzeko zailtasunak: ekonomia popular eta solidarioaren kasua

Esan bezala, 2008ko konstituzio berritzailearekin eta 2009ko *Buen Vivir*-erako Planaren jarraipenarekin, aldaketa sakonak antzeman zitezkeen Ekuadorreko politiketan alor askotan, besteak beste Ekonomia Sozial eta Solidarioaren esparruan, baina ez ziren gauzatu. Konstituzioaren bidea jarraitu nahian, 2011n Ekonomia Popular eta Solidarioaren⁶ Legea promulgatu zen, eta, besteak beste, Ekonomia Popular eta Solidarioarako Institutua sortu, hori sustatzeko. Ekuadorren, lehenago bazeuden jada ekonomia solidarioaren eragile eta erakundeak, eta garai horretan bertan MESSE (*Movimiento de Economía Social y Solidaria del Ecuador*) ere sortu zen, zeinak hainbat erakunde sozial artikulatzen zituen.

Antza, Estatuak pausoak ematekoa zen ekonomia-ereduak aldatzen saiatzeko, baina hainbat arazo sortu ziren tartean, jarraian ikusiko dugunez. Adibidez, Ekonomia Popular eta Solidarioaren sektorea bera identifikatu eta mugarritzeko arazoak egon ziren; zein erakunde-motak izan behar zuten sektore horren barruan? Nola zerrendatu edo erregistratu Estatuaren partetik? Hemen, koherentzia-faltari dagozkion arazoak sortu ziren, askotariko karga burokratikoak, eta, horregatik, hainbat erakundek erabaki zuten ez parte hartzea (autobazterketa); aldiz, enpresa konbentzional batzuek aukera baliatu zuten eurak erregistratzeko eta Estatuaren onura batzuk jaso ahal izateko (intrusismoa) (Villalba-Eguiluz et al. 2020).

Bestalde, politiken koordinazioan eta gobernantzan ere sortu ziren arazoak. Erakunde sozialek parte hartzeko aukera-falta egon zen neurriak diseinatu eta inplementatzerakoan; burokratizazioa ere areagotu zen; eta, horregatik, ekonomia solidarioaren dinamika propio eta natural batzuk ere oztopatu ziren paradoxikoki.

Beste arazo nabarmen bat: Ekonomia Popular eta Solidarioaren jarduerak merkatuan integratzean izaten diren inkoherentziak lotura zuten, elkertasun- eta errezuprozidade-dinamikak baino, mozkinak lotzearen dinamika dependenteak sortu baitziren, bai erosketak publikoekiko zein handizkako hipermerkatu batzuekiko (idem).

Finean, bi gatazka handi islatu ziren neurriekin. Batetik, Estatuak sustatutako Ekonomia Popular eta Solidarioak sistema ekonomiko osoaren eraldaketa bilatu behar al du? Edo bakarrik segmentu espezifiko konkretu batean zentratu (txiroen ekonomia-jarduera txikietan)? Eta, aldi berean, nola jarraitu ekonomia solidarioaren balioekiko fidela izaten, eta horiek inplementatu eskala handiago batean eta merkatuarekin eta Estatuarekin hartu-emanen sartzean?

Gainera, Ekonomia Popular eta Solidarioaren politiketarako lehenengo urteetan Gobernuak dirua jarri arren, 2014tik aurrera murrizketak oso nabariak izan ziren, eta apenas egin ahal izan ziren sustapen politikak (Villalba-Eguiluz et al. 2020). Egun ekonomia solidarioko elkarte askok bere horretan jarraitzen dute, tokian tokiko oinarrietatik lan egiten, baina Estatuaren politikek hartu duten norabidea ez da desiragarria zena.

6 *Ekonomia Popular Solidarioa* terminoa erabiltzen dugu Ekuadorreko politika ofizialez hitz egiteko, han horrela izendatu dutelako. Ordea, *Ekonomia Solidario* edo *Ekonomia Sozial Solidario* terminoez ari garenean, korrante teoriko zabalagoaz mintzatuko gara, edo erakunde sozial eraldatzaileez.

Para poder construir sociedades sostenibles, justas y equitativas, debemos realizar una transición hacia otro modelo radicalmente diferente que sitúe el cuidado de la vida y del planeta en el centro...

Creemos que la generación de redes, el trabajo conjunto y la articulación de discursos, luchas y movimientos resultan imprescindibles para avanzar colectivamente hacia la transformación social... Iniciamos nuestro trabajo en red queriendo acercarnos y dar a conocer de manera interconectada distintas corrientes de pensamiento que nos proponen construir nuevos modelos de organización social que sitúen en el centro el cuidado de la vida y del planeta, como lo son los paradigmas de Decrecimiento y Buen Vivir desde una mirada feminista.

Mugarik Gabe, Red Decrecimiento y Buen Vivir, 2016.

6. Azken hitzak: Erronkak eta elkar-bilaketak orain eta hemen

Bizitze Ona Ekuador eta Boliviako konstituzioetara ailegatu zenetik hamarkada bat baino gehiago pasatu denean, tartean lehenagoko arazo globalak ageriago uzten dituen (sin-)pandemia bat igarota, *impasse*-egoera batean gaude paradigma honen zabaltzeari dagokionez. Instituzionalki erabilia izan ostean, ez da gehiago aldarrikatzen, eta ez da zabalduko. Herri indigenek euren ondarea kooptatu nahi izan dutelako kezkarekin darraite. Paradoxikoki, Europako mugimendu alternatiboen eta akademiaren artean zabaldu da gehien azken urteetan, baina hor ere geldiunea dago. Zer tokatzen da orain orduan? Nola egin daiteke aurrera Bizitze Ona sustatzeko?

Batetik, adierazi behar da praktikan frustratutako trantsizioek ezin dutela paradigma teoriko berak duen potentzialitatea bazterrarazi. Bestetik, hemen Euskal Herritik, Europatik, hasieratik erantzuteko ditugun galderak: Bizitze Onaren zein alderdi ekar ditzakegu gurera? Gure bizimodu moderno, hiritar, kontsumista, estresatuan kabitzen al dira? Nola, zenbateraino, zertarako uztartu beste eredu alternatibo batzuekin, desazkundearekin kasu? Eta espreski euskaldunok, ba al dugu, izan al genuen, edo etorkizunean izan al dezakegu gure Bizitze Oneko eredu propio bat?

Askotariko krisi sakonak gertatzen diren garai honetan, "utopiak" sarean eraikitzen saiatu beharko dugu, trantsizio ekosozial jasangarri eta justuak abiarazi nahi baditugu behintzat. Ausartak izan behar dugu horretarako, helburu eta aldaketa erradikalagoak bilatzeko beldur barik aritu, horiek zientifikoki eta politikoki ondo justifikatuta daude eta. Bizitze Ona erreferentzia desiragarri horietako bat da; bestelakoak ere badaude. Eta Ekuadorren izandako prozesutik ikas dezakegu zeozer aldaketarako oztopoez, kooptazio arriskuez, eragileen arteko konfrontazioez eta abar. Finean, historia herriona bide da.

7. Bibliografía

- Acosta, Alberto (2013) *El Buen Vivir. Sumak Kawsay, una oportunidad para imaginar otros mundos*. ICARIA.
- Cubillo-Guevara, Ana Patricia, Antonio Luis Hidalgo-Capitán, Santiago García-Álvarez (2016) El Buen Vivir como alterantiva al desarrollo para América Latina. *Iberoamerican Journal of Development Studies*, 5(2):30-57.
- Choquehuanca, David (2010) Hacia la reconstrucción del Vivir Bien. *ALAI, América Latina en Movimiento*, 452:8-13.
- Escobar, Arturo (2010) Latin America at the crossroads: alternative modernizations, postliberalism, or post-development? *Cultural Studies*, 24(1):1-65.
- Escobar, Arturo (2015) Degrowth, postdevelopment and transitions: a preliminary conversation. *Sustainability Science*, 10(3):451-462.
- Gudynas, Eduardo (2011) Buen Vivir: germinando alternativas al desarrollo. *ALAI, América Latina en movimiento*, 462:1-20.
- Gudynas, Eduardo (2014) El postdesarrollo como crítica y el Buen Vivir como alternativa, 61-95, in: Delgado (koord.) *Buena Vida, Buen Vivir: imaginarios alternativos para el bien común de la humanidad*. UNAM.
- Hidalgo-Capitán, Antonio Luis, Santiago García-Álvarez, Ana Patricia Cubillo-Guevara, Nancy Medina-Carranco (2019) Los Objetivos del Buen Vivir. Una propuesta alternativa a los Objetivos de Desarrollo Sostenible. *Iberoamerican Journal of Development Studies*, 8(1):7-57.
- Huanacuni, Fernando (2010) *Buen Vivir/ Vivir Bien. Filosofía, política, estrategias y experiencias regionales andinas*. CAOI, Lima.
- Kothari, Ashish, Ariel Salleh, Arturo Escobar, Federico Demaria eta Alberto Acosta (koord.) (2019) *Pluriverso. Un diccionario del posdesarrollo*. Bartzelona, Icaria.
- Latorre, Sara, K. Farrell, Joan Martínez-Alier (2015) The commodification of nature and socio-environmental resistance in Ecuador: an inventory of accumulation by dispossession cases, 1980-2013. *Ecological Economics*, 116:58-69.
- Macas, Luis (2010) Sumak Kawsay: La vida en plenitud. *ALAI, América Latina en Movimiento*, 452:14-16.
- Pérez, Laura, Mónica Domínguez-Serrano (2015) Una revisión feminista del decrecimiento y el Buen Vivir. Contribuciones para la sostenibilidad de la vida humana y no humana. *Revista de Economía Crítica*, 19:34-57.
- Rodríguez, Adriana (2016) *Teoría y práctica del Buen Vivir: Orígenes, debates conceptuales y conflictos sociales. El caso de Ecuador*. Doktorego-tesia, UPV/EHU.
- Quijano, Aníbal (2011) Bien Vivir: entre el desarrollo y la des/colonialidad del poder. *Ecuador Debate*, 84:77-88.
- Tortosa, José María (2011) *Maldesarrollo y Malvivir. Pobreza y violencia a escala mundial*. Abya Yala, Quito.
- Vega, Silvia (2014) El orden de género en el sumak kawsay y el suma qamaña. Un vistazo a los debates actuales en Bolivia y Ecuador. *Íconos*, 48:73-91.
- Villalba, Unai (2013) Buen Vivir vs Development: A paradigm shift in the Andes? *Third World Quarterly*, 34(8):1427-1442.
- Villalba-Eguiluz, Unai, Iker Etxano (2017) Buen Vivir vs Development (II): The limits of (neo-)extractivism. *Ecological Economics*, 138:1-11.
- Villalba-Eguiluz, Unai, Juan Carlos Pérez de Mendiguren (2019) La economía social y solidaria como vía para el Buen Vivir. *Revista Iberoamericana de Estudios del Desarrollo*, 8(1):106-136.
- Villalba-Eguiluz, Unai, Asier Arcos-Alonso, Juan Carlos Pérez de Mendiguren, Leticia Urretabizkaia (2020) Social and Solidarity Economy in Ecuador: Fostering an Alternative Development Model? *Sustainability*, 12(17):6876.
- Walsh, Catherine (2010) Development as Buen Vivir: institutional arrangements and (de)colonial entanglements. *Development*, 53(1):15-21.

1. **Garapenari buruzko pentsamenduaren bilakaera: teoriak, estrategiak eta adierazleak.** Luis Guridi, Hegoa Institutua Ekonomia Aplikatua I Saila. 2017.
2. **Garapena eta iraunkortasuna: bilakaera, bateragarritasuna eta ikuspegiak.** Iker Etxano Gandariasbeitia, Ekonomia Aplikatua I Saila, UPV/EHU. 2017.
3. **Garapena feminismotik aztertzen.** Yolanda Jubeto Ruiz, Mertxe Larrañaga Sarriegi, Hegoa Institutua, Ekonomia Aplikatua I Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
4. **Garapenerako lankidetzeta eta bere bilakaera.** Irati Labaien Egiguren, Jorge Gutiérrez Goiria, Hegoa Institutua, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
5. **Amildegia so: krisi ekosozialari aurre egiteko zenbait oinarri.** Joseba Azkarraga Etxagibel, Soziologia Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
6. **Migrazioak eta garapena Win-win agertokia posible ote?** Gorka Moreno Márquez, Xabier Aierdi Urraza, Ikuspegi – Euskal Immigrazioaren Behatokia. Euskal Herriko Unibertsitatea.
7. **Ekonomia soziala: Ikerketa-objektua eta analisirako lanabesak.** Enekoitz Etxezarreta Etxarri, Juan Carlos Pérez de Mendiguren Castresana, Ekonomia Aplikatua I Saila. Gezki Institutua. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU. Enpresen Antolaketa Saila. Hegoa Institutua. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
8. **Globalizazioa eta tokiko garapena.** Mikel Zurbano, Elena Martínez Tola, Xabier Gainza, Pablo Arrillaga, Ekonomia Aplikatua I Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea.
9. **XXI. mendeko pobrezia. Benetan ezabatzeko proposamenak.** Alfonso Dubois Migoya, UPV/EHUko irakasle erretiratu, Hegoa Institutua.
10. **Elikadura-sistemak: Elikadura Burujabetzaren eta Agroekologiaren estrategia askatzaileak.** Eflen Areskurrinaga Mirandona, Ekonomia Aplikatua I UPV/EHU eta Hegoa Institutua. Mirene Begiristain Zubillaga, Finantza Ekonomia II UPV/EHU eta Hegoa Institutua. Eduardo Malagón Zaldúa, Ekonomia Aplikatua V UPV/EHU Hegoa Institutua.
11. **2030 Agenda eta Garapen Jasangarrirako Helburuak: jatorria, edukia eta jarraipena.** Andrés Fernando Herrera Herrera, HEGOIA Institutua, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU).
12. **Gobernantza eta herritarren partaidetza.** Jone Martínez-Palacios, Andere Ormazabal Gaston, Igor Ahedo Gurrutxaga, EHUko Politika Zientzia eta Administrazio Saileko kideak eta demokrazia partizipatiboari buruzko Parte Hartuz ikerketa-taldeko ikertzaileak.
13. **Gatazka armatuak, bakea eta garapena.** Itziar Mujika Chao eta iker zirion landaluze, UPV/EHUko Nazioarteko Zuzenbide Publikoa, Nazioarteko Harremanak eta Zuzenbidearen Historia Saileko irakasleak, eta Hegoa Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutuko ikertzaileak.
14. **Finantza etikoak, ekonomia solidarioa sustatzeko tresna ekonomikoak eta politikoak.** Cristina de la Cruz-Ayuso, Deustuko Unibertsitateko irakaslea eta ikertzailea. Pedro Arrupe Giza Eskubideko Institutua.
15. **Merkatu soziala: Ekonomia Solidarioa hedatzeko estrategia.** Carlos Askunze Elizaga, REAS Euskadi. María Angeles Díez López, UPV/EHUko Hegoa Institutua eta REAS Euskadi.
16. **Kontabilitate Finantzarioaren begirada zabalduz Gizarteari eta Naturari buruzko informaziora. Gizarte Kontabilitatearen jatorria, eboluzioa eta etorkizuneko erronkak.** Ainhoa Garayar, Ekonomia eta Enpresa Fakultatea –Gipuzkoako Atala–. Maider Aldaz, Ekonomia eta Enpresa Fakultatea –Gipuzkoako Atala–. Igor Alvarez, Ekonomia eta Enpresa Fakultatea –Gipuzkoako Atala–. Jone Arocena, Gestoría Aguirre Gestión.
17. **Txina: Garapen eredu biberatzea eta munduko ekonomian zeregin berria.** Juan Barredo-Zuriarrain, Euskal Herriko Unibertsitateko Ekonomia Aplikatua I Saileko irakasle laguntzailea. Ricardo Molero Simarro, Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Egitura Ekonomikoko eta Garapenaren Ekonomia Saileko irakaslea.

- 18.** Happykrazia: psikologia positiboaren hedapena eta bizitzaren psikopatologizazioan duen eragina. Maria Lopez Castillo, HEGOA/EHUko Globalizazioa eta Garapena Masterreko ikasle ohia. Galdakao-Usansolo Ospitaleko erizaina.
- 19.** Herri Administrazioaren erosketak: berdeak, sozialak, berritzaileak... arduratsuak Artizar Erauskin, Ekonomia Aplikatua I Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
- 20.** Klima-aldaketari buruzko hitzaurrea: inpaktuak eta egokitzapena. Elisa Sainz de Murieta, Basque Centre for Climate Change (BC3), 48940 Leioa. Marta Escapa1, Basque Centre for Climate Change (BC3), 48940 Leioa, Analisi Ekonomikoko Saila, EHU.
- 21.** Sumak kawsay, buen vivir, bizitze ona: Garapenari alternatiben bila. Unai Villalba-Eguiluz, UPV/EHUko Ekonomia Aplikatua Saileko irakasle-ikertzailea. Ekonomia eta Enpresa Fakultatea-Araba.

